

MKM

# Arte berria ikusgai jartzearen artea

Artista gazteek euren lanak erakusteko lanak izaten dituzte. Galerietako ateak jo eta baietza jasotzea ez da erraza izaten ordea. Donostian gune berri bat sortu dute, pertsona hauei lehenengo aukera hori emateko.

MAYI TOLOSA

Argazkiak: Karlos Corbella

“PASE SIN LLAMAR”. Horixe irakurri dugu MKM arte guneko atean. Ireki dugu atea eta galeria batean sartu garelara iruditu zaigu, baina ez, elkarrizketa hasi baino lehen hori argi utzi nahi izan digute. “Hau ez da galeria, hau arte gunea da”.

Galeria hitzari beldur handia diote artista hasiberriek eta ez dute halakorik eragin nahi. Hain justu, kontrakoa bilatzen dute. Edozeinek paratu dezake bere erakusketa hemen.

MKM 80 metro koadro dira. Espazio horretan sartzen den arte guztia, bi astez erakusgai jarri dezakegu. Gune irekia da, ez dute inolako baldintzarik jartzen.

## Artistak diren galeristak

Hiru pertsona daude proiektu honen atzean: Mikel Berezibar margolaria, Monica Zarate argazkilaria eta abokatua eta Carolina Erdozia, Guggenheim museoko komunikazio ardura-duna.

Mikel Berezibar  
MKM aretoaren  
bultzatzaileetako  
bat, Errenteria  
kaleko lokalean.

Hiruek ongi ezagutzen dute zer den galeria batera joan eta ezetza jasotzea, baldintza gehiegi bete behar izatea... esperientzia hori bizi eta gero pentsatu zuten proiektu hau sortzea. Merkatuan hutsune bat ikusi zuten eta hori betetzera datoz. Galeristen eta artista hasiberrien arteko zubia izan nahi dute.

Euren ustez, garai batean galeristek egiten zuten lan hori. Talentu berriak bilatzen zituzten eta estudioak bisitatzen zituzten. Egun ordea, zirkulu hori askoz ere itxiagoa dela iruditzen zaie.

## Erakusleiho merkea eta egokia

Galeristekin kontaktuak lortzea beraz oso zaila izaten da hasieran. Horregatik, tabernetan eta bereziki prestaturik ez dauden lekuetan ipini behar izaten dituzte askok euren bildumak. “Horri aurre egin nahi diogu”, dio Mikel Berezibar arduradunetako batek, “lana estimatu dadin leku egokia behar du eta. Espazio hau ongi atondua dago eta merkea da, galeriek eskaintzen dituzten prezioekin alderatzen badugu”.

Lokalaren alokairua eta gastuak bakarrik kobratzen dituzte. 360 euro guztira. Erakusketak taldeka egitea ere onartzen dute eta hartara, merkeago da partaide bakoitzarentzat bere lana aurkeztea.

Orain bi hilabete ireki zituzten Groseko Errenteria kalean duten lokaleko ateak. Orduetik, asteleheneretik ostiralera egunero izan dituzte bisitak. Arratsaldero, goizetan itxita izaten baita.

Estreinako ekimena arte azoka txiki bat izan zen. Gabon aurretik egin zuten eta dezente saldu zen. Hainbat artistaren lanak lehenengoz saldu ziren azoka horretan eta erosleak ere oso pozik etxeratu ziren eramandakoa kalitate handikoa zela esanaz.



**Ostiralak MKMn**

Artea gauza oso serioa dela uste duten arren, serioentzako zerbait bakarrik denik ez dute kontsideratzen. Lagun artean gozatzeko ere badela irizten dute, eta asmo horri erantzun nahirik, ostiraletan halako meriendatxo bat prestatzen dute, giro lasaigoan erakusketa hauei buruz egileak eta bisitariek hitz egin dezaten.

Diziplina guztiei egingo diete leku. Gainera, berandu baino lehen konferentziak prestatzen ere hasi nahi dute. Hori bai, MKMra datozen artista horiei guztiei, ez diete promesa faltsurik egin nahi. "Ohikoa izaten da salmentak izango dituela segurtatzea, baina gero ez da espero dena betetzen. Horregatik, guk gauzak argi uzten dizkiegu. Gero saltzen badute, bada askoz ere hobea" dio Berezibarrek.

**Opportunity Gallery**

Mikel Berezibarrek espero du egunen batean itxaron zerrenda gehiago ezin luzatuagatik, beste lokal handiago batera joan behar izatea. Bere hitzetan benetan oso seinale ona izango delako.

Eta hasi direnetik seinale onak besterik ez omen dituzte izan. Hasieratik, eta hasi aurretik ere. MKMren esperientzia pilotua orain bi urte egin zuten. 2004an izan zen, Manifesta 5 Donostian egin zenean.

*Opportunity Gallery* deitu zioten eta Manifestan parte hartzeko aukeratu ez zituzten artistei eman zieten aukera. Lagun batzuen lokala atondu zuten orduan eta oso txukun moldatu zirela oroitzen dute. Ideia oso txalotua izan zen.

**Artearen merkaturako zubia**

Azkenik lortu dute euren asmoa martxan jartzea. Bertan bere lana aurkezteko aukera izan zuen lehena Nicolás Alba Madrileko eskultorea izan zen. *Cruzando puentes* zuen izenburu bere bildumak eta 11 piezaz osatua zegoen. Guztiak zubiak ziren. Egileak modu horretara MKMren filosofia ere islatzen zela adierazi zuen.

MKMko arduradunek uste dute Euskal Herrian harrobi sendoa badela, baina aukera gutxi ematen zaizkiola. Adibide gisa jarri digute, beste leku askotan baino beka gehiago eskaintzen direla arte bildumak osatzeko, baina gero ez dela lan horiek erakusteko modurik.

Harrobi hori indartzea da euren aspirazioa eta bertaratzeko deia luzatzen diote helburu hori lortzeko bere apurra jarri nahi duen orori. Sikiera ostiral batean pintxoak eta ardo txoak hartzera gonbidatuta zaude. Ez galdu aukera! ■

**WWW.HOTSAK.COM**

**gaztelupeko HOTSAK**  
Tel: +34 943 750016  
Fax: +34 943 750139  
gaztelupeko@hotsak.com

**Non dira**  
Non dira

**BIDE ERTZEAN**  
Non dira

**KARIDADEKO BENTA**  
San Quirico

**HAUXE**  
Txuma Rafa eta Petti

**TXUMA RAFA eta PETTI**  
Hauxe

**CONXITA**  
Añabaitra petita

**ATERKINGS**  
Aterqueans

**LOS REYES DEL KO**  
Hot tin roof